

#NAIDERCOP21: EZINBESTEKO GAKOAK

Posted on 24/11/2015 by Naider

Gaur, prestatzen ari garen COP21aren gakoak partekatu nahi ditugu zuekin. Baldintzen, hitzarmenen eta erakundeen hutsunean orientatzen lagunduko dizutela espero dugu:

- Helburu nagusia: ekonomia deskarbonizatzeko prozesua kudeatzen duzun akordio loteslea, tenperaturaren igoera industriaurreko mailatik bi gradu baino handiagoa izan ez dadin.
- Itunak klima-aldaketaren ondorio saihestezinetara egokitze nola elkarlanean aritu ere aztertzen du.
- Akordio berriak Kiotoko Protokoloa ordezkatzeko du, 2020an indarrean sartuko da eta 2050era arte iraungo du. Akordioa lortzen bada, 2015 eta 2020 artean berretsi beharko dute herrialde sinatzaileek.
- Akordio berriak herrialde guztien betebeharrak barne hartuko ditu, eta isurien % 100 estaliko ditu.
- Dagoeneko 170 herrialdek isurketak murrizteko konpromisoak aurkeztu dizkiote NBERi. Hala ere, hauek tenperaturaren igoera 2,7°C-ra mugatuko lukete, ezarritako helburuaren azpitik.
- Helburuak eta konpromisoak bost urtean behin berrikustea proposatu da, anbizio maila progresiboki egokitze eta handitzea.
- Helburuak lortzeko 13,5 bilioi inbertsioa beharko dela uste du Energiaren Nazioarteko Agentziak.
- Akordio honek erregai fosilen amaieraren hasiera markatuko du.
- Desadostasun puntu nagusiak finantzaketa, herrialde aberatsen eta pobreen arteko bereizketa eta akordioaren anbizioa dira.
- Une politikoa ez da inoiz mesedegarriagoa izan, Txinak eta AEBek aldebiko konpromisoa sinatu baitute eta G7ak konpromisoa aldarrikatu baitute. Aita Santuak eta buruzagi musulmanak ere ekintzarako deia egin dute eta aldaketa ren aldeko konpromisoa adierazi dute
- Une teknologikoa ere egokia da, alternatiba ugariarekin, energia berriztagarrien prezioen jaitsierarekin eta industria barrutik aldatzeko konpromisoa.
- Eszeptizismo handia dago, 2009an Kopenhagen COP-en etsipen handiaren ostean.
- Zientzialari batzuek beranduegi dela uste dute.



There are no comments yet.